

**2026.urteko diru-laguntzen deialdia**

**Eremua: GARAPEN IRAUNKORRERAKO ETA  
ELKARTASUN GLOBALERAKO LANKIDETZA**

**Diru-laguntzen lerroa: 3- GARAPENERAKO NAZIOARTEKO  
LANKIDETZA, HAINBAT URTETARAKO PROGRAMAK:  
HELBURU NAGUSIA GASTU ARRUNTA DUTENAK**

## **1. artikulua. Esparrua eta xedea**

Giza Eskubideak, Bizikidetzaren, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Sailak, Garapen iraunkorrerako eta elkartasun globalerako lankidetzaren eremuaren barruan, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren hainbat urtetarako programak: helburu nagusia gastu arrunta dutenak" izeneko diru-laguntzak emango ditu. Horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzen du, "Bilbon balioen garapena sustatzea, besteak beste, elkartasuna, emakumeen eta gizonen berdintasuna, lankidetzaren eta kulturarteko eta belaunaldien arteko bizikidetzaren". Diru-laguntza horiek 2029ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar duten garapenerako lankidetzarako proiektuak eta programak finantzatzeko emango dira. Gastu arruntaren proiektutzat jotzen dira entitateak edota prozesuak indartzea, prestakuntza zein trebakuntza xede dutenak.

Gehieneko diru-kopurua, programako: 70.000 € urtero. 210.000 € guztira.

## **2. artikulua. Aplikatzekoa den araudia**

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 188/2025 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituena
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu betegina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa.-
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeakoa

## **3. artikulua. Erakunde onuradunak**

3.1 Elkarrekin eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateek dirulaguntza eska dezakete, baldintza hauek betetzen badituzte: :

- a) Egoitza nagusia edo ordezkari finkoa edukitzea Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) diru-laguntzaren eskaria egin baino urte bi lehenagotik gutxienez. Era berean, jendeari arreta emateko zerbitzuaren (baldin badu) ordutegia zehaztuko da, eta egoitza etxebizitza partikularrekin batera dagoen adieraziko da.
- b) Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetzak agertzea.
- c) Deialdi honetako jardueretako ekintzak sustatzea Bilbon.

Udalerrian presentzia aktiboa dagoela irizten da erakundearen esparrutik kanpoko jarduerak ireki eta publiko hauetako batzuk eginak izango dituzte azken bi urteotan:

- Sentsibilizazio eta elkartasunaren arloko kanpainak.
- Prestakuntzako edo/eta sentsibilizazioko jarduerak ikastetxeetan, gizarte erakundeetan, auzo-elkarteetan, eta abarretan.
- Deialdi honekin lotutako erakusketak.
- Arlo honekin lotutako ikerketa-jarduerak edo/eta testuak, gida didaktikoak, artikuluak, erreportajeak eta azterlanak argitaratzea.
- Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kide, Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseiluko kide edo/eta Bilboko Udalaren Immigrazio Gaietarako Kontseiluko kide izatea eta bere jardueretan parte hartzea.

- d) Erakunde partzuergoek (edo nortasun juridikorik ez daukaten taldeek) ere diru-laguntzak eska ditzakete. Taldearen ordezkari modura erakunde bat izendatu beharko dute, taldeari, onuradun modura, dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askiatsiarekin. Erakunde ordezkari horrek aurreko paragrafoetan jasotako baldintzak bete beharko ditu eta partzuergoaren edo taldearen ordezkari izango du zabaltzen den administrazio espedientean. Partzuergoa edo taldea ez deuseztatze konpromisoa egin beharko dute diru-laguntzaren ondorioetarako, ez bada preskripzioaren epea amaitu. Eskabidean jasoko dira kide den erakunde bakoitzak onartutako betearazpen konpromisoak.

Partzuergoko kide guztiek 3.3 artikuluko baldintzak bete beharko dituzte.

- e) Diru-laguntza eskatzen duen erakundea izango da hura betetzearen eta Bilboko Udalaren aurrean behar bezala justifikatzearen arduraduna, lekuko kideek edo atzerriko alderdiek gauzatu arren osorik edo zati batean.
- f) Eskabidea egin duen elkarteak 2024ko edo aurreko deialdietan jasotako diru-laguntzak justifikatuta eduki behar ditu deialdi hau ebatzen den unean. Hainbat urtetarako diru-laguntzak badira, udalaren 2024ko edo aurreko urteetako aurrekontuetakoak egongo dira justifikatuta. Eskudun organoak gaitzetsiko ditu baldintza hau betetzen ez duten eskabideak.
- g) Eskabidea egin duen elkarteak eskaerak egiteko epe barruan aurkeztu beharko ditu agiriak. Behin epea amaituta aurkeztutako agiriak, ez dira kontuan hartuko proiektua baloratzeko. Hori Bilboko Udalak beren beregi eskatutako agiriak izan ezik.

### 3.2. Elkarte eskatzaileek, Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan (Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030Agenda eta Nazioarteko

Gaietarako Saila, Campo Volantin pasalekua, 1bis, 5.solairua) inskribatuta eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte.

**3.3.** Entitate eskatzaileek zega-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributo-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, diru-laguntza eman, betebeharra onartu eta ordaitzen den unerako.

## **4. artikulua. Aurrekontu-kredituak**

**4.1.** Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen PEP 2016/00297 eta 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldietarako onartutako 2016 32000 4 00297 00 2026 gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa hurrengoa da:

2026ko aurrekontua: 181.625 €  
2027ko aurrekontua: 181.625 €  
2028ko aurrekontua: 181.625 €

---

Guztira: 544.875 €

**4.2.** Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

## **5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura**

**5.1.** Diruz laguntzeko kontzeptuari **aplikatzeko erregimena norgehiagoka izan daiteke:**

- Norgehiagokan, diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

**5.2.** 3.arloan onartutako diru-laguntzen zenbateko osoa benetan erabiltzen den kopurua baino txikiagoa bada, geratzen dena 1.arloko zenbatekoari gehituko zaio: 2026/00126

**5.3.** Behin gutxieneko atalera helduta (60 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

<b>Programari emandako puntuak</b>	<b>Emateko diru-laguntzaren %</b>
70 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
60-70 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80

## **6. artikulua. Diruz laguntzeko kontzeptuak**

### **6.1 Diru-Laguntza jasoko dute baldintza hauek betetzen dituzten programak:**

- a) ELGAko Garapenerako Laguntza Komiteak GLOren hartzaile gisa kalifikatutako herrialdeetan egitea. Saharaz azpiko Afrikak lehentasuna dauka, helburu bikoitza lortu nahi delako: batetik, kontinente horretan lankidetzak sustatzea eta, bestetik, proiektuak baloratzeko orduan kontuan hartu ohi diren irizpideetako batzuk betetzeko zailtasuna konpentsatzea. Horregatik, Saharaz azpiko Afrikan gauzatzekoak diren proiektuek, lankidetzarako sekzio guztietan, baremazio handiagoa izango dute, hau da, baremazio-taularen arabera lortzen den puntuazioa bider 1,05 egingo da.
- b) Funtsezko eta oinarrizko gizarte-premiak hobetzeko eragin praktikoa eta zuzena duten ekintza zehaztuta oinarrituta egotea.
- c) Proposatutako ekintzaren jasotzaileen artean ez dadila egon diskriminaziorik arraza, erlijio, sexu, joera sexual edota adinagatik, eta emakumeen rol hirukoitza aitortu dadila (etxeko kontuen kudeaketa, ekoizpenekoa eta erkidegokoa). Generoko behar estrategikoak asebetu ditzala eta emakumeak gizartean eta politikan duten lekua hobetzeko izan dadila.
- d) Gizarte zibilaren laguntza eta partaidetzazko garapena, giza eskubideak eta demokrazia bultzatzeko izan daitezela.
- e) Bideragarriak izan daitezela Udalaren finantzazioa amaitutakoan.
- f) Lekuko bazkide baten edo atzerriko alderdi baten bidez egitea, biztanleria onuradunaren partaidetzaz. Lekuko bazkidea irabazi-asmorik gabeko erakundea edo erakunde publikoa izango da, nortasun juridikoa duena eratu eta dagokion erregistroan formalki inskribatua. Lankidetzak eratze-dokumentua (lankidetzak-fitxa) erantsiko da eta, bertan, erakunde eskatzailearen eta tokiko alderdiaren konpromisoa eta ardurak jasota etorriko dira. Lekuko bazkideek edo atzerriko alderdiek gauzatzen badute diru-laguntza, osorik edo zati batean, ez da azpikontrataziotzat joko 38/2003 Legearen 29. artikulua ondu ondorioetarako.
- g) Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian hastea.
- h) Proiektuak 2029ko abenduaren 31 baino lehenago amaitzea.  
Justifikatuta badago, epe hori luza daiteke, baina horretarako Bilboko Udalak beren beregi eta alde aurretik eman beharko du baimena.
- i) Proiekturako komunikaziorako erabiltzen den edozein materialek Bilboko Udalaren logotipoa edukitzea, Lankidetzak eta Herritarren Gaietarako Sailak horretarako emandako jarraibideekin bat etorrita. Erakunde onuradunak material hori gainbegiratzea erraztuko dio Bilboko Udalari. Baldintza hau ez betetzeak emandako diru-laguntza udalari itzultzeko prozedura hastea ekar dezake.
- j) Deialdi honen bidez Bilboko Udalak guztira egin beharreko finantzazioa kostu osoaren zenbatekoaren % 100 izan daiteke.
- k) Bilboko Udalaren dirulaguntzak 15.000 eurotik gorako garraio-elementuen (ibilgailuak edo antzekoak) inbertsioak finantzatzeko balio duen proiektuetan, erakunde eskatzaileak konpromisoa hartu behar du hurrengo deialdietan proiektuaren jarraipena aurkezteko, edo, hala badagokio, behar bezala arrazoituta, alderdi hori betetzen ez bada.

- l) Genero-ikuspegiaren integrazioa, hau da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin lotutako ebazpenak betetzea; emakume eta gizonezkoen egoera, baldintza, jomuga eta beharrianak era desberdinean hartzea, eta politika eta ekintza guztietan, beraien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketak zehatzak txertatzea.
- m) Erakunde eskatzaile, lekuko bazkide edo atzerriko alderdiak ez eduzkitzea diru-laguntza izendunerako nazioarteko hitzarmenik Udalaren garapenerako lankidetzaren aurrekontuan.
- n) Bilboko Udalarekin, Lankidetzarako Udal Kontseiluarekin edo beste erakunderen batekin lankidetzan jardutea herritarrei proiektuaren garapenari buruzko informazioa ematean. Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzaren arloan antola daitezkeen jardueretan ere parte hartu behar dute.
- o) Hainbat urtetarako proiektuak garapenerako nazioarteko lankidetzarako eskabide-formularioaren arabera formulatuko dira eta horretan helburuak, lortu nahi diren emaitzak, jarduerak, proiektua gauzatzeko beharrezko baliabideak, jarraipenaren eta burutzapenaren adierazleak eta aurreikusitako ebaluazioa behar bezala zehaztuta geratuko dira.
- p) Hainbat urtetarako proiektuetan beste hauek ere egiaztatu behar dira:
  - Erakunde eskatzaileak, deialdiaren aurreko 4 urteetan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan gutxienez 2 proiektu gestionatu dituela Bilboko Udalak Diru laguntzen Deialdiaren barruan emandako diru laguntzen kargura, eta erakunde arduradun edo partzuergo baten kide modura jardun duela.
  - Eskaria egin duen erakundeak deialdiaren aurreko lau urteetan Bilboko Udalarekin batera finantzatzeko garapenerako lankidetzako gutxienez proiektu bat gauzatu duen herrialde batean egitekoa dela.
  - Deialdiaren zer-nolakoak, garapenak edo betearazpenak eskatutako laguntza urte anitzekoa izatea justifikatzen duela.
- q) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako hainbat urtetako proiektuek nahitaez aurreikusi egin beharko dute kanpoko ebaluazio bat. Diru-laguntza jaso dezakeen kostua ez da izango emandako diru-laguntza baino % 5 altuagoa. Salbuespen gisa, Nazioarteko Erakundearen kontrol-sisteman indarrean dauden prozedurari jarraituz burututako ebaluazioak ere onartuko dira. Ebaluazioaren erreferentzia-terminoak eta ebaluazio-taldea edo aholkularia Bilboko Udalarekin adostuta egon beharko dute. Kanpoko ebaluazio-txostena proiektua gauzatu den aldiaren sartuta egon behar da.
- r) Hainbat urtetako proiektuetarako eskabideak badira, udal aurrekontuaren hiru urtetako bakoitzerako desglosatuta aurkeztu beharko dira.

## 6.2 Garapenerako nazioarteko lankidetzako programetako diruz lagundu daitezkeen gastuak

a) Diruz laguntzeko gastuak joko dira diruz lagunduriko jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat egiten duten dagokion deialdia araupetzen duten oinarriek ezarritako epe barruan egiten diren gastu guztiak. Inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak eskuratzeko kostua ezingo da merkatuko balioaren goragokoa izan.

b) Diru-laguntzak araupetzen dituzten oinarriek aurkakoa adierazten ez badu, egindako gastutzat joko da hura justifikatzeko ezarritako epea amaitu baino lehen eraginkortasunez ordaindu dena.

c) Diru-laguntzak ezingo du zuzeneko eta zeharkako gastuak barne hartu. Zeharkako kostuen muga: Proiektuaren guztiaren gastu zuzenen % 10. Zeharkako gastutzat jotzen dira erakunde eskatzailearen ordezkariaren edo Bilboko egoitzaren funtzionamenduaren berezkoa eta esku-hartzea gauzatzeko oinarri gisa erabiltzen diren gastuak, edo dagokionean, lankidetzak hitzarmenean zehazten diren gastuak.

d) Zuzeneko gastutzat joko dira esku-hartzea gauzatzeari lotutako gastu guztiak. Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Lurraldeko esku-hartzea identifikatuz eratorritakoak, baldin eta diru laguntzen dagokion deialdia amaitu baino aurreko bost hilabetetan egin bada eta deialdiaren aurrekontu urte berebean;

b) Kanpo ebaluazioak eta kontu-ikuskapenak, baldin eta Administrazioak eskatu baditu, edo diru-laguntza eskatu duenak eginiko proposamen honen bidez onartu badira;

c) Lurraldeak eta higiezinak, erositakoak zein alokatutakoak;

d) Higiezin edota azpiegituren eraikuntza edota erreforma (esku lana, obra zuzendaritza, lizentziak, eraikuntza materialak, etab. barne);

e) Esku-hartzeari lotutako lurraldeei eta higiezin eraikuntzari lepora dakiekeen gastuetan, jabetza araubidea eta titularitatea zehaztu beharko da, hura egiaztatzen duen dokumentazio nahikoa entregatuz;

f) Ekipoak, materialak eta hornikuntzak. Diruz lagunduriko jardueraren lurraldeak eta eraikinak ez bezalako hibilgetu elementuak erostea ekipamendutzat hartuko da: makinak, altzariak, ekipo informatikoak, garraio elementuak eta beste ekipamendua. Kontzeptu horretan ekipoak bidaltzetik eratorritako gastuak barne hartu ahal izango dira;

g) Langileak. Arau horren ondorioetarako honakoa hartuko da kontuan:

- Atzerrian dauden langileak: eskaria egiten duen erakundeko langileak dira eta diruz lagundutako esku-hartzea egiten den herrialdean ematen dute zerbitzua. Langile horien funtzioak eta zereginak zuzenean daude lotuta haiekin, Lankideen Estatutua onartzen duen uztailaren 23ko 708/2024 Errege Dekretuaren arabera.
- Bertako langileak: erakunde eskatzailearen edo bertako bere bazkideen langileak, talde onuradunaren beste erakunde batenak. Langile horiek guztiak diru-laguntzaren xede den esku-hartzea gauzatzen den herriko lan legeen menpe izango dira eta aipatutako zerbitzuak adierazitako herrian garatuko ditu. Euren betekizunek eta betebeharrek esku-hartzearekin zuzeneko lotura izango dute.
- Egoitzako langileak: Bilboko egoitzan zerbitzuak eskaintzen dituen Estatutako legeen menpeko erakunde eskatzailearen langileak, garatzen dituzten zerbitzuak

dirrela eta, noizean behin edo maiz egikaritze herrialdeetara joan behar izatea alde batera utzita. Horien betekizunak eta betebeharrak egikaritzeari eta diru-laguntzaren xedeko esku-hartzearen jarraipenari egozten zaizkie.

Nolanahi ere, erabat edo partzialki egotziko da, betekizunaren arabera diruz lagunduriko esku-hartzeari egiaztatzearen arabera.

Diruz lagundu daitezkeen langileen gastuek barne hartu ahal izango dituzte indarrean dauden legeetan derrigorrezkoak direnak.

Atzerrian dauden langileei eta egoitzan daudenei, gehienez ere, proiektuaren aurrekontuaren % 20 inputatuko zaie.

h) Gaikuntzak, mintegiak, diagnostikoak, txostenak, argitarapenak, gestio kontrola edo esku-hartzearen formulazioan adierazitako bestelako premiak asetzeko eskatutako zerbitzu teknikoak eta profesionalak;

i) Kreditu osagai bat duten esku-hartzeak egonez gero, funts birakariak ezingo ditu gainditu deialdian ezarritako mugak, edo finantzatutako gastu zuzenen %30. Funts birakaria gestionatzen duen erakundeak kanpo finantza- kontabilitate auditoretza aurkeztu beharko du 30.000 eurotik gorako fondoetarako, edo kopuru baxuagorako ere bai, emakidan hala zehazten bada.

j) Esparruko mantentzea (elektrizitatea, ura, komunikabideak, mantentzea, segurtasuna, ...).

k) Bidaiak, ostatua eta dietak. Esku-hartzea egikaritzeko atzerriratutako langileen mugikortasunerako eta lokalerako gastuak eta esku-hartzea gauzatzeko proiektuaren jasotzaile diren pertsonen beharrezko gastuak sartzen dira. Ez da onartuko egoitzako langileen bidaiako, ostatuko gasturik eta dietarik, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

l) Esku-hartzea egikaritzeko beharrezko diren finantza-gastuak, lege edo finantza aholkularitzakoak, notariokoak eta erregistrokoak. Kontzeptu honetan sartzen dira egikaritze herrialdeetako fondoetako banku transferentzietatik eratorritako gastuak.

m) Proiektuaren formulazioan aurreikusitako gastuak, esku-hartzearekin lotutakoak eta Bilbon garapenerako heziketa ekimenekin eta gizarte sentsibilizaziorakoekin lotutakoak.

n) Ez da inolako baloraziorik onartuko. Eskaria egin duen erakundeak ekarpen balorizatuak jasota utzi nahi baditu horri buruzko informazioa erantsi dezake, baina ez dira agertuko proiektuaren aurrekontuan.

**6.3** Diruz laguntzako moduko kontzeptu baten zenbatekoa Sektore Publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017ko Legean dauden kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa bada (horniketa eta zerbitzu-kontratuetan 15.000€ eta BEZa eta obra-kontratuetan 40.000€ eta BEZa), erakunde onuradunak, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu behar ditu, gutxienez, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik edota xede-herrialdeko ezaugarriengatik, hori betetzeko aukera ematen ez duenean salbu. Inguruabar hauetan, beharrezkoa izango da dagokion Espainiako Lankidetzaren Bulegoak edo xede-herrialdeko espainiar

enbaxadak igorritako txosten bat aurkeztea, salbuespen hori egiaztatzeko. Hala ezingo balitz, Europar Batasuneko edozein herrialdetako enbaxadakoa onartuko litzateke.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan edo, egoki bada, diru-laguntzaren eskarian, aurkeztu beharko dira eta horien artean bat aukeratzeko eraginkortasuna eta ekonomiako irizpideak hartuko dira kontuan. Ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzeko, memoria batean justifikatu beharko da beren beregi.

Esku-hartzea gauzatzen deneko herrialde edo lur-eremuri lotutako arazoak direla medio, Administrazioak salbuespenak egin ahala izango ditu atal honetan ezarritako betekizunei dagokienean.

**6.4** Diru laguntzei buruzko Legen Orokorren 31.4 artikuluan agindutakoari jarraituz, Bilboko Udalak emandako diru laguntzekin, salbuespenez, eraikitzen diren higiezinak nahiz erosten diren ibilgailu edo bestelako ekipoak burututako jarduketaren helburuetara lotuta geratuko dira formalki, eta, behin helburu horiek erdietsitakoan, edo esku-hartzea gauzatzeko ezintasuna sortzen denean, eskualdatu egingo dira, eta GGKE espainiarrak, ez bertoko laguntzaileek, ez dituzte libreki erabiliko. Esku-aldatzea esku-hartzearen xede deneko herrialdeko tokiko erakundeei egingo zaie nagusiki eta egitate horren dokumentuzko isla egin beharko da. Dena delakogatik ere erakunde publikoak ezingo balute erantzukizun hau bere egin, erakunde eskatzaileak ziotutako proposamen alternatibo bat aurkeztu beharko du, eta hau Bilboko Udalak onetsi egin beharko du.

**6.5.** Balorazio-batzordeak aurkeztutako proiektuan jarduera edo gastu batzuk aldatzeko eska dezake; hori, helburuak betetzeko beharrezko iritzita. Aldaketak aurrekontuan aldaketarik balekar, entitate eskatzaileari eskabidea berriro egiteko eska dakioke.

#### **6.6. Inola ere ezingo dute diru-laguntzarik jaso:**

- a) Banku kontuen interes zordunak.
- b) Administrazio eta zigor interesak, errekarquak eta zehapenak.
- c) Auzi prozedurengatik gastuak.
- d) Egoitzan dauden langileen gastuak inagurazioetako ekitaldiak, dohaitzak, titulartasunaren transferentziak edo antzekoak direnean.

**6.7.** Orokorrean, zergak diru-laguntza jaso dezaketen gastua dira, erakunde onuradunak diruz ordaintzen baditu.

## **7. artikulua. Eskabideak**

### **7.1. Aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2026ko otsailaren 20an amaituko da.

### **7.2. Informazioa eta dokumentazioa**

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orriaren ([www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian ([www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio](http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio)).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean ([www.infosubvenciones.es](http://www.infosubvenciones.es)).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

### 7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen bitartez.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

**7.4.** Erakundearen legezko ordezkariak edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko debekuetako bat ere ez duela (Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan ezartzen dira debekuok).

**7.5.** Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

**7.6.** Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziazioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

**7.7.** Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

**7.8.** Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu behar da.

**7.9.** Erakunde eskari-egile bakoitzak Garapenerako Lankidetzak eta Giza Eskubideen esparruko 1, 2, 3 eta 4 lerro guztietarako programa bakarra aurkeztu ahal izango du.

## **8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

---

**8.1.** Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2026. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

**8.2.** Eskaria **udal erregistroan** aurkezten bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Eskabide horria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da "Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2026. urtea)" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).
- Erabiltzen diren siglak edota laburdurak azaltzeko aurkibide-orria ere aurkeztu behar da.

**8.3.** Eskaera sinatzen duenak Bilboko Udalarik baimena ematen dio betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan egiazta dezan. Dena dela, ez baimentzeko aukera izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

**8.4.** Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

**8.5.** Dirua irabazi asmorik gabeko erakundeek, elkarte ez badira, 3.1 artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Erakundearen estatutuak.
- Dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Erakundeak Bilbon duen egoitza nagusia edo ordezkaria egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

**8.6.** Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, ez badago behar bezala formalizatuta edo aipatutako daturen bat edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **eskatuko zaio akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epe luzaezinean**, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela

ulertuko dela, administrazio-prozedura legean aurreikusitako moduan eman beharko den ebazpena eman ondoren.

## **9. artikulua. Balorazio-irizpideak**

---

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

### **9.1. Proiektuaren identifikazio, kalitate teknikoa eta koherentzia (58 puntu):**

- a) Aurrekariari eta proiektua burutuko den testuinguruari buruzko informazioa, bereziki garrantzia emanez genero-berdintasunari eta giza eskubideak betetzeari. (gehienez 7 puntu).
- *Proiektuari buruzko informazio orokorra, aurrekariarekin eta testuinguruarekin, modu argi, zehatz, doi eta xehean deskribatuta. Proiektuaren egokitasuna eta beharrezakoa (3 puntu gehienez).*
  - *Proiektuaren testuinguru orokorra (alderdi geografiko, juridiko, sozial eta/edo ekonomikoari buruzko informazioarekin) (puntu 1 gehienez)*
  - *Ekintza zehatzak eta zuzeneko eragin praktikoa funtsezko beharrezan sozialetan (3 puntu gehienez)*
- b) Agertutako helburuen, proposatutako jardueren, lortu nahi diren emaitzen eta proiektua abiatzeko baliabideen azalpena eta euren arteko koherentzia. (gehienez 5 puntu).
- *Koherentzia helburuen eta emaitzen artean. Beraien azalpen zuzena (2 puntu gehienez)*
  - *Emaitzen eta egin beharreko jardueren arteko koherentzia. Baliabide ekonomiko eta/edo teknikoak baloratuko dira, beraiek ezartzeko (2 puntu gehienez)*
  - *Genero-ikuspegia txertatzea atal guztietan (puntu 1 gehienez)*
- c) Emaitzak neurtuko dituzten adierazleen erabilpena eta haiek egiaztatzeko sistemena. (gehienez 2 puntu).
- *Prozesuko adierazleen azalpen zuzen eta argia (puntu 1 gehienez)*
  - *Emaitzen adierazleen azalpen zuzen eta argia (0,5 puntu gehienez)*
  - *Egiaztatze sistema zuzen eta argi azalduta (0,5 puntu gehienez)*
- d) Proiektuan erabiliko den zerbitzu eta baliabideetan emakume eta gizonezkoen benetako partaidetzari buruzko jarraipen eta ebaluazio datuak jasotzeko genero-adierazleak erabiltzea. (gehienez 1 puntu)
- *Genero-adierazleen azalpen egokia, jarraipenerako eta ebaluaziorako (0,5 puntu gehienez)*

- *Emakumeen eta gizonen parte-hartzeari buruzko datuak bereiziko dira prozesu osoan zehar (0,5 puntu gehienez)*

e) *Bideragarritasun teknikoa eta finantzazkoa, eta aurrekontua deialdirako egokitzea. (gehienez 6 puntu).*

- *Aurrekontua aurkezteko Nazioarteko Lankidetzarako Deialdiaren formularioa erabiltzea (0,5 puntu gehienez)*

- *Aurkeztutako aurrekontua koherentea izatea egin gura diren jardueretarako (2 puntu gehienez)*

- *Aurrekontua behar bezala aurkeztea (bai diru-zenbatekoetan, bai portzentajeetan), eskaera hasi zenetik (puntu 1 gehienez)*

- *Proforma fakturak aurkeztea (puntu 1 gehienez)*

- *Bideragarritasun tekniko eta finantzarioa, modu eraginkorrean (1,5 puntu gehienez)*

f) *Zuzenean edo zeharka onuradun izango diren biztanleei buruzko informazio zehatza, sexuka eta biztanleria hori aukeratzeko irizpideen arabera bananduta. (gehienez 2 puntu).*

- *Biztanleria onuradunari buruzko informazioa eta proiektuaren zuzeneko onuradun diren pertsona kopuruari buruzko informazioa. (puntu 1)*

- *Zuzeneko onuradun den biztanleriari buruzko informazioa, sexuaren arabera bereizita (0,5 puntu)*

- *Zeharkako onuradun den biztanleriari buruzko informazioa, sexuaren arabera bereizita (0,5 puntu)*

g) *Proiektuak ekintzen bidez, batez ere prestakuntza arlokoen bidez, gizartean aldaketak eragiteko duen gaitasuna. (gehienez 3 puntu).*

- *Proiektua batik bat hezkuntzazkoa izatea (puntu 1 gehienez)*

- *Proiektua batik bat gizarte-eraldaketakoa izatea (puntu 1 gehienez)*

- *Proiektuak prestakuntza-jarduerak edukitzea (puntu 1 gehienez)*

h) *Teknologia berriak proiektuan erabiltzea. (gehienez puntu 2).*

- *Proiektuan teknologia berriak erabiltzea, modu zehatzean eta proiektua gauzatzeari lotuta (puntu 1 gehienez)*

- *Eskaera dirulaguntzen udal aplikazio informatikoaren bidez aurkeztea (0,5 puntu gehienez)*

- *Eranskinak online, CD-an, USB-an edo antzeko formatu batean aurkeztea (0,5 puntu gehienez)*

- i) Emakumeek proiektuaren ziklo osoan parte hartzeko dituzten zailtasunak (ordutegia, lekua, informazioa...) gainditzeko neurriak hartzea. (gehienez puntu 2).
- *Neurrien eta horiek betetzeko tresnen deskribapen laburra (0,5 puntu gehienez)*
  - *Emakumeek proiektuaren ziklo osoan parte hartzea errazteko neurri horien deskribapen xehe eta zabala (1,5 puntu gehienez)*
- j) Bilboko elkarte eta erakundeen eta txiroitutako herrialdeko komunitate edo erakundeen edo arteko harremana sustatzea. Lehentasuna emango zaie elkarte feministei edota emakumeen taldeei eta giza eskubideen defentsan eta sustapenean beren beregi lan egiten dutenei. (gehienez 1 puntu).
- *Esperientziak trukatzeko neurrien deskribapen laburra (0,25 puntu gehienez)*
  - *Esperientziak trukatzeko neurrien deskribapen xehea (0,50 puntu gehienez)*
  - *Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin edo giza eskubideen defentsarekin zuzeneko lotura duten Bilboko entitateekin egiten da trukea (0,25 puntu gehienez)*
- k) Bidezko Merkataritzaren eta Kontsumo Arduratsuaren sustapenerako estrategiak indartzeko osagarri produktiboak sartzea (gehienez puntu 2).
- *Proiektuak zerikusia dauka bidezko merkataritzarekin, eta alor horretako estrategiak zehazten ditu (puntu 1 gehienez)*
  - *Proiektuak gaiaren analisi xehea egiten du eta haren osagai nagusia bidezko merkataritza da (puntu 1 gehienez)*
- l) Material grafikoa eta kokapen-mapak eranstea. (gehienez 2 puntu).
- *Material grafikoa eta kokapen-mapak eranstea (0,50 puntu gehienez)*
  - *Material grafiko eta kokapen-mapa xehe eta argiak sartzea (1,50 puntu gehienez)*
- m) Jarraipenerako egingo diren jardueren deskripzioa egitea, alde batetik erakunde eskatzaileak eta, bestetik, helburu den tokiko alderdiak edo kontraparteak, bai proiektuak dirauen bitartean, bai amaitutakoan. (gehienez 2 puntu).
- *Jarraipenaren deskribapen laburra (0,5 puntu gehienez)*
  - *Jarraipenaren deskribapen xehe, argi eta egokia (1,5 puntu gehienez)*
- n) Proiektua eskatzailearen erakundearen, tokiko alderdiaren edo kontrapartearen edota tokiko administrazioen ekintza-estrategia batean sartuta egotea; estrategia hori biztanleen eskubideak betetzera orientatuta egonda. (gehienez 2 puntu).
- *Entitate eskatzailearen estrategia zehazten da (0,50 puntu gehienez)*
  - *Entitate kontrapartearen estrategia zehazten da (0,50 puntu gehienez)*
  - *Tokiko administrazioak gaiak duen estrategian sartzen da eta modu xehean azaltzen da (puntu 1 gehienez)*

- o) Proiektua bat dator GJH hauetako batera bideratutako sektore-lehentasunekin: 4 (kalitate-hezkuntza), 5 (genero-berdintasuna), 6 (ur garbia eta saneamendua), 11 (hiri eta komunitate iraunkorrak) eta 12 (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak). (gehienez 9 puntu).

- *Proiektua guztiz bat dator hurrengo helburuetako batekin (9 puntu gehienez)*

4. GJH:

- 4.1 xedea: Lehen eta bigarren hezkuntza
- 4.3. helburua: Prestakuntza teknikoa, profesionala eta goi mailakoa
- 4.5. helburua: Pertsona ahulen hezkuntza
- 4.7 helburua: Garapen iraunkorrerako hezkuntza
- 4.a helburua: Hezkuntza-instalazioak

5. GJH:

- 5.2 xedea: Indarkeria matxistaren aurkako borroka
- 5.3. helmuga: Emakumeen genitalen mutilazioaren aurkako borroka
- 5.5. helburua: Emakumeen parte-hartzea eta aukera-berdintasuna
- 5.6. helburua: Sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna

6. GJH:

- 6.1 xedea: Edateko ura eskuratzea
- 6.2 helburua: Saneamendurako eta higienarako sarbidea
- 6.a helburua: Ura kudeatzeko gaitasunak hobetzea
- 6.b helburua: Tokiko komunitateen parte-hartzea

11. GJH:

- 11.1 xedea: Etxebizitza eta oinarrizko zerbitzu egokiak
- 11.3 xedea: Urbanizazio inklusiboa eta iraunkorra
- 11.4. helburua: Kultura-ondarea babestea

12. GJH:

- 12.a helburua: Kontsumo eta ekoizpen iraunkorrangoak

- *Proiektua, neurri batean, bat dator aurreko puntuan deskribatutako helburuetako batekin (4 puntu gehienez)*

- p) Genero-ikuspegiaren eta generoaren araberrako eraginaren zeharkakotasuna eta txertaketa (gehienez 3 puntu). Hori baloratzeko ondorengo alderdiak hartuko dira kontuan:

- *Analisisan, diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan erabilitako metodologia, fase guztietan genero ikuspegia txertatu dela kontuan hartuta.*

- Jarraipen eta ebaluaziorako adierazle zehatzak eta egiaztagarriak, bai prozesuarenak, bai eta emaitza eta helburuenak ere. Zenbatekotasunaren eta nolakotasunaren adierazleak txertatzen ahalegindu beharko da.
  - Proiektuaren estrategia orokorrarekiko koherentzia.
  - Emaitza eta helburuen bideragarritasuna eta jasangarritasuna, ikuspegi tekniko, ekonomiko eta instituzionaletik begiratuta.
    - Fase guztietan genero-ikuspegia sartzea (0,50 puntu gehienez)
    - Adierazleak modu argi, xehe eta egiaztagarrian deskribatzea (0,50 puntu gehienez)
    - Koherentzia proiektuaren estrategia orokorrarekin (puntu 1 gehienez)
    - Etorkizunerako bideragarritasuna eta jasangarritasuna (puntu 1 gehienez)
- q) Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren IV. Plan Zuzentzailearen ordenarako printzipioak eta zehar lerroen balorazioa (gehienez 5 puntu).
- Zeharlerroak sartzearen deskribapen laburra (2 puntu gehienez)
  - Zehar lerroak sartzearen deskribapen xehe, argi eta erabakigarria (3 puntu gehienez)
- r) Agiri guztiak behar bezala aurkeztea eskaria egiteko unean (2 puntu gehienez).

## **9.2. Eskaria egiten duten erakundeari dagokionez (14 puntu):**

- a) Erakunde eskatzailearen esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 3 puntu).
- 7 urte baino gehiago behar bezala burututako proiektuak egiten, sektoreko lehentasunetan esperientzia izanik (3 puntu)
  - 3 urte baino gehiago behar bezala burututako proiektuak egiten, sektoreko lehentasunetan esperientzia izanik (2 puntu)
  - 1 urte baino gehiago behar bezala burututako proiektuak egiten, sektoreko lehentasunetan esperientzia izanik (puntu 1)
- b) Erakundearen partzuergo batek aurkeztea proiektua. (gehienez 0,5 puntu)
- c) Bilboko Udalak lehenago finantzaturako proiektuetan erakunde eskatzaileak izandako emaitza positiboak. (gehienez puntu 1).
- Antzeko proiektuak egitea, emaitza positiboekin (0,50 puntu gehienez)
  - Nazioarteko lankidetzako 2 proiektu egitea gutxienez, emaitza positiboekin (0,50 puntu gehienez)

- d) Bulegoak edota Bilboko delegazioak proiektuaren idazketan parte hartzea. (gehienez puntu 1)
- *Argi eta garbi, Bilboko ordezkariak proiektua idazten du, haren arduraduna da eta kudeatu egiten du (puntu 1 gehienez)*
- e) Proposatutako aldean eta sektorean proiektuak egin izanaren aurrekariak. (gehienez puntu 1).
- *Aldean eta sektorean 5 urte baino gehiago daramate lanean, modu iraunkorren (puntu 1 gehienez).*
  - *Aldean eta sektorean 2 urte baino gehiago daramate lanean, modu iraunkorren (0,50 puntu gehienez).*
- f) Euskal erakundeak, elkarteak eta erakunde pribatuak proiektuan sarrarazteko ahalmena, batez ere, horiek berdinketa politiken sustapenean eta emakumeen eskubideen defentsan lan egiten badute. (gehienez 0,5 puntu)
- *Euskal erakunde publikoen parte-hartze hori egingo den modua zehazten da, eta bilatzen diren helburuak azaltzen dira. (0,20 puntu gehienez)*
  - *Euskal erakunde pribatuen parte-hartze hori egingo den modua zehazten da, eta bilatzen diren helburuak azaltzen dira. (0,20 puntu gehienez)*
  - *Berdintasunaren alorreko konpromisoa berariaz aipatzen da (0,10 puntu gehienez)*
- g) Jarraipena Bilboko Udalak finantzaturako ekintzetan (gehienez 3 puntu).
- *Proiektu hau beste baten jarraipena da, udal finantzaketarekin, 7 urte baino gehiagoan, emaitza positiboekin (3 puntu gehienez)*
  - *Proiektu hau beste baten jarraipena da, udal finantzaketarekin, 3 urte baino gehiagoan, emaitza positiboekin (2 puntu gehienez)*
  - *Proiektu hau beste baten jarraipena da, udal finantzaketarekin, 1 urte baino gehiagoan, emaitza positiboekin (puntu 1 gehienez)*
- h) Emakume eta gizonen presentzia orekatua (sexu bakoitzeko ordezkariak, % 40) Gobernu Batzordean edota erakundearen zuzendaritzaren baliokide den beste organoren batean. (gehienez puntu 1)
- i) Egiaztatutako prestakuntza genero gaietan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1).
- j) Erakunde eskatzailearen finantza eta teknikako gaitasuna genero ikuspegitik lan egiteko (Genero Politika/Dokumentua, genero gaietan esperientzia, genero ikuspegiak proiektuan duen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa, plangintzarako tresnak, genero sareen edo emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko mugimenduetako partaide izatea...). (gehienez puntu 1)
- k) Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kidea izatea. (puntu 1)

### 9.3. Inguru geografikoari dagokionez (7 puntu):

- a) Jardueraren helmuga herrialde edo eremu hauetako batean: Senegal, Bolivia, Honduras, Guatemala, El Salvador, RASD, Rep. Dem. Kongo (6 puntu).
- b) Jardueraren xedea herrialde edo eremu hauetako batean: Saharaz azpiko Afrikako gainerako herrialdeetan, Kolonbian, Ekuadorren, Kuban, Perun, Chiapasen, Nikaraguan (3 puntu).
- c) Aurreko puntuetan deskribatu gabeko ELGEko CADeko zerrendan gutxien garatutako herrialdeen 2025. zerrendan jasotako herrialde batean jarduera zertarako erabiliko den (2 puntu)
- d) Jarduera hiri-inguruneetan egiten da (puntu 1 gehienez)

### 9.4. Tokiko alderdiari edo kontraparteari dagokionez (10 puntu):

- a) Tokiko alderdiaren edo kontrapartearen esperientzia eta kudeaketa gaitasuna, Bilboko Udalaren Garapenerako Lankidetzaren IV.Plan Zuzentzailearen lehentasun sektorialetan batez ere. (gehienez 2 puntu).
  - 7 urte baino gehiago zonan behar bezala burututako proiektuak egiten, sektoreko lehentasunetan esperientzia izanik (2 puntu gehienez)
  - 3 urte baino gehiago zonan behar bezala burututako proiektuak egiten, sektoreko lehentasunetan esperientzia izanik (puntu 1 gehienez)
- b) Elkarteak izaera feminista edo emakumeena izatea edota emakumeen politiketan, sustapenean eta giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakunde eta elkarteak proiektuan inplikatzeko gaitasuna. (gehienez 2 puntu)
  - Kontrapartea elkarte feminista bat edo emakume-elkarte bat da (puntu 1 gehienez)
  - Kontrapartea erakundeak sartzen ditu proiektuan, berdintasuna eta giza eskubideen defentsa sustatzeko. (puntu 1 gehienez)
- c) Eskaria egin duen erakundearen eta tokiko alderdiaren edo kontrapartearen arteko lehendiko harremanak. (gehienez puntu 1).
  - Harremanak 7 urtetik gorakoak dira (puntu 1 gehienez)
  - Harremanak 3 urtetik gorakoak dira (0,5 puntu gehienez)
  - Harremanak 1 urtetik gorakoak dira (0,25 puntu gehienez)
- d) Bilboko Udalak finantzaturako proiektuetan lehendik izandako lankidetzaharremanak. (gehienez 2 puntu).
  - Antzeko proiektuak egitea, emaitza positiboekin, 5 urte baino gehiagoan jarraian (2 puntu gehienez)
  - Antzeko proiektuak egitea, emaitza positiboekin, 3 urte baino gehiagoan jarraian (puntu 1 gehienez)

- *Antzeko proiektuak egitea, emaitza positiboekin, urte 1 baino gehiagoan jarraian (0,50 puntu gehienez)*

e) Erakunde lokalen eta zuzeneko onuradunen arteko harremanak. (gehienez 2 puntu).

- *Kontrapartea biztanleria onuradunak osatzen du (2 puntu gehienez)*

- *Kontraparteak harremana du biztanleria onuradunarekin, 10 urte baino gehiagoan (puntu 1 gehienez)*

- *Kontraparteak harremana du biztanleria onuradunarekin, 5 urte baino gehiagoan (0,50 puntu gehienez)*

f) Egiaztatutako prestakuntza genero gaitan, proiektuaren arduradun den gutxienez taldekide baten aldetik. (gehienez puntu 1).

- *Lanbide prestakuntza eta/edo esperientzia, unibertsitate osteko mailan (puntu 1 gehienez)*

- *Ikastaroen, gaikuntzen eta abarrekoen bidezko prestakuntza (0,50 puntu gehienez)*

#### **9.5 Erakunde lokal publikoek xede-lekuan duten partaidetzari dagokionean (6 puntu):**

a) Tokiko politika publikoetan proiektua integratzeari edota koordinatzeari buruzko informazioa. (gehienez 2 puntu).

- *Proiektua tokiko politika publikoetan koordinatzeko eta/edo integratzeko informazio xehea (2 puntu gehienez)*

- *Proiektua tokiko politika publikoetan koordinatzeko eta/edo integratzeko oinarrizko informazioa (1 puntu gehienez)*

b) Eskumena duten erakunde lokal demokratikoen edo erakunde publikoen beren beregi parte hartzea edo horiek laguntzea proiektuak aurrera eramateko. (gehienez 2 puntu).

- *Informazio egokia, proiektua egikaritzean tokiko erakunde demokratikoen edo erakunde publiko eskudunek zuzenean inplikatzeari buruz (puntu 1 gehienez)*

- *Tokiko erakunde demokratikoen edo erakunde publiko eskudunek proiektuari emandako abala eransten da (0,50 puntu gehienez)*

- *Proiektua egikaritzean tokiko erakunde demokratikoen edo erakunde publiko eskudunek emandako baliabide ekonomikoren baten dokumentu ofiziala eransten da (0,50 puntu gehienez)*

c) Eskumena duten erakunde publikoen beren beregi laguntza ematea behin proiektua amaitutakoan. (gehienez 2 puntu).

- *Informazio egokia, proiektuari jarraipena emateko eta haren jasangarritasuna mesedetzeko tokiko erakunde demokratikoez edo erakunde publiko eskudunek zuzenean inplikatzeari buruz (puntu 1 gehienez)*

- *Proiektuari jarraipena emateko eta haren jasangarritasuna mesedetzeko tokiko erakunde demokratikoez edo erakunde publiko eskudunek hartutako konpromisoaren dokumentua edo abala eranstean da (0,50 puntu gehienez)*

- *Proiektuari jarraipena emateko eta haren jasangarritasuna mesedetzeko tokiko erakunde demokratikoez edo erakunde publiko eskudunek emandako baliabide ekonomikoen dokumentu ofiziala eranstean da (0,50 puntu gehienez)*

#### **9.6 Proiektuaren helburu diren biztanleei dagokienez (5 puntu):**

a) Bereziki kalteberak diren biztanleriaren sektoreen eskubideak bermatzeko edo babesteko proiektua, batez ere, indigenen, nekazaritzako inguru apaleko biztanleen, hiri-inguruetakoko biztanleen, baztertutako emakumeen, baztertutako umeen, gizakien salerosketak eragindako pertsonen, errefuxiatu, erbesterratu edo itzultitako, minusbalotasun funtzionala daukatenen eta abarren eskubideak. (gehienez 2 puntu)

- *Proiektua, batik bat, aurreko taldeetako birentzat edo gehiagorentzat da (2 puntu gehienez)*

- *Proiektua, batik bat, aurreko taldeetako batentzat da (puntu 1 gehienez)*

- *Proiektuak osagairen bat dauka aurreko taldeetakoren bat bermatzeko edo babesteko (0,5 puntu gehienez)*

b) Proiektuaren helburu diren prestonek proiektuaren fase desberdinetan parte hartzea, emakume eta gizonezkoen partaidetza orekatua kontuan hartuta (gehienez 2 puntu).

- *Biztanleria hartzaileak proiektuaren faseetan izan duen parte-hartze aktiboaren mailari buruzko informazio xehea (puntu 1 gehienez).*

- *Proiektuaren faseetan gizonek eta emakumeek izan duten parte-hartze aktiboari buruzko informazio xehea (puntu 1 gehienez)*

c) Emakumeen elkarteak indartzea (emakume liderren prestakuntza, emakumeen autonomiari laguntzea, emakumeen hautagai-zerrendak prestatzeko laguntza, etab.) (gehienez puntu 1).

- *Biztanleria hartzailea, batik bat, emakumeek deskribatutako helburuetarako eratutako elkarteak dira (puntu 1 gehienez)*

- *Biztanleria hartzailea, besteak beste, emakume-elkarteak dira (0,50 puntu gehienez)*

**9.7** Programak baloratzeko, dirulaguntza eskatzeko inprimakian eta erakunde eskatzaileak bere borondatez sartu ahal izango dituen ondorengo eranskinetan jasotako informazioa bakarrik hartuko da kontuan:

- d) -Aurrekontu banakatua.
- e) -2.500 eurotik gorako gastuen proformako fakturak, unitateko kostuan
- f) -Erakunde publiko eskudunen abalak
- g) -Karpeta teknikoak
- h) -Material grafikoa eta kokapen-mapak
- i) -Tokiko administrazioaren, tokiko gizarte-administrazioaren eta erakunde eskatzailearen estrategiaren dokumentua (9.1.n puntua)
- j) -Prestakuntzari eta genero-ikuspegiari buruzko dokumentua (9.2.i, 9.2.j eta 9.4.f puntuak)
- k) Ez da kontuan hartuko 9.7 puntu honetan adierazitakoez bestelako informazio-iturri posiblerik.

## **10. artikulua. Izapideak eta balorazioa**

**10.1.** Prozeduraren instrukzio-organoa Giza Eskubideak, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Saileko Garapenerako Lankidetzaren Sekzioari atxikitako langileek izango dute.

**10.2.** Kide anitzeko organo gisa jarduten duen balorazio-batzordea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera, honako hauek osatuko dute:

Presidentea: Giza Eskubideak, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Saileko zinegotzi-ordezkaria

Idazkaria: Giza Eskubideak, Bizikidetzeta, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Saileko Zuzendaria

Kideak: Sekzioko burua

Lankidetzako teknikariak

**10.3.** Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

**10.4.** Balorazio Batzordearen txostenaren berri emango zaie Bilboko Lankidetzako Udala Kontseiluko Batzorde Betearazleari eta Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezi Mistoari, behin betiko ebazpen-proposamena egin aurretik.

**10.5.** Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

## **11. artikulua. Berriz antolatzea**

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko

oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

## **12. artikulua. Ebazpena**

---

**12.1.** Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

**12.2.** Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzaren berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

**12.3.** Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

## **13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea**

---

**13.1.** Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantzazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

**13.2.** Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

**13.3.** Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

**13.4.** Hainbat urtetarako proiektuen bigarren eta hirugarren urtekoak dagokion aurrekontu-urtean ordainduko dira, aurreko urtekoen % 75 behar bezala justifikatu ondoren

## **14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea**

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantzazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

*Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.*

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzten kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan. Hala ere, hartzaileen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskara hutsean egin ahal izango dira

Halaber, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista kontuan hartu beharko da aurkeztutako dokumentazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikulua eta Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzaren 15. artikulua betez.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

## **15. artikulua. Azpikontratazioa**

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29 artikuluan ezarritakoa bete behar dute, kontuan hartuta, gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak sartutako betebeharrak.

## **16. artikulua. Programa aldatzea**

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoak aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.
- Tokiko bazkidea edo atzerriko alderdia aldatzea.
- Proiektuaren biztanle protagonista aldatzea.
- Proiektuaren kokagunea aldatzea.
- Jatorrizko kronograma oinarri hartuta, jardueren betearazpenean sei hilabetetik gorako eragina daukaten aldaketak.
- Hiru hilabetetik gorako luzapenak.

Jarduerak egiteko epeak gehienez ere hiru hilabete luzatu ahal izango dira alde aurretik baimenik izan barik. Hala ere, luzapen hori Bilboko Udalari jakinarazi beharko zaio justifikaziorako hasierako epea bukatu baino lehen. Jakinarazpen horrekin, epea modu automatikoan luzatu dela ulertuko da.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

## **17. artikulua. Uko egitea**

Behin diru-laguntzak egokituta, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

## **18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea**

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantzazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondoren. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

## **19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea**

### **19.1. Justifikatzeko epea**

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

### **19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa**

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

### **19.3. Justifikatzeko sistema**

**19.3.1. Norgehiagokan,** diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

Justifikazio-kontuan honako hauek jaso behar dira:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, emandako ereduaren arabera.
- b) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Hori guztiori eskaria egitean aurkeztutako programarekin bat etorrita. Proiektuaren memoria teknikoan zehaztu egingo dira egindako ekintzak, lortutako emaitzak, lortutako helburuak eta aurkitutako arazoak, genero-ikuspegitik. Beharrezkoa bada, proiektuaren eragina aipatuko da (alderdi teknikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, ekologikoak eta emakumeen eta gizonen arteko botere-erlazioari dagozkionak).

Dokumentu bat erantsiko da (Bilboko Udalak emandakoa) Kontuak Emateko Adierazleei buruz, GLOen esku-hartzei lotutako emaitzetan oinarrituta, estatu mailako Lankidetzako eragileek kontu erantsiak ematea bideragarria izan dadin.

Bideo bat sartuko da formatu horizontalean (web-esteka: Vimeo, youtube edo antzekoa), minutu bat eta bi minutu bitarteko iraupenekoa, diruz lagundutako proiektua aurkezteko balioko duena eta Bilboko Udalaren lankidetzak eta logoa jasoko dituen. Bideo hau udalaren webgunean jarri ahal izango da.

Txosten teknikoan Power Point bat sartu ahal izango da (gehienez 20 diapositibakoa) egindako proiektuaren laburpen moduan, honakoak jasota besteak beste: lorpenak, ahuleziak, alde sendoak, jasangarritasuna, burututako ekintzak etab. Proiektua egin den leku geografikoaren maoak eta argazkiak sartuko dira nahitaez. Power Point hori Bilboko Udalaren web orrian sartu ahal izango da, urteko memorietan.

c) Gastua justifikatzeko kontua; horretarako, aukera hauetako bat aukeratu ahal izango du erakundeak:

- gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua
- auditoriaren txostena dakarren justifikazio-kontua

d) Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua

- Programa gauzatzeari dagokion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera. Balantze horretan, aurrekontuaren konparazio-taula bat jasoko da, partiden arabera. Onartutako eta gauzaturako aurrekontua izango da, eta gertatutako desbideratzeak eta horiei buruzko informazioa adieraziko dira.

- Egindako gastuen zerrenda, partida bakoitzeko hurrenkera korrelatiboan zenbakitua, onartutako aurrekontuan adierazten den bezala. Zerrenda eredu honen arabera osatuko da: fakturaren edo dokumentuaren zenbakia, erakunde ordaintzailea (erakunde eskatzailea edo tokiko kontraparteia izan, elkarrearen fitxan ezarritakoaren arabera), data, partida, kontzeptua, erakunde hornitzailea, herrialdeko monetan dagoen zenbatekoa (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako dirulaguntzetan), zenbatekoa eurotan.

- Gastuaren egiaztagiriak: ahal den guztietan, fakturen edo bestelako dokumentu elektronikoaren bidez aurkeztuko dira. Ezinezkoa bada, egiaztagiriak paperean edo kopia eskaneatu bidez aurkeztuko dira, zigilatu beharrik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpen batekin batera, dokumentazioa jatorrizkoarekin bat datorrela bermatuko da.

Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeke jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200

euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztatzea ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak (sortutakoa guztira) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak (LIZ, langileen izenen zerrenda) aurkeztu behar dira .

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

Jatorrizko dokumentazioa berreskuratu nahi izanez gero, fakturen kopia ere eman behar dira, ordena berean. Ez dira sartuko kontratuak, kotizazioak, proforma-fakturak, erreferentzia-terminoak eta abar, salbu eta Bilboko Udalak berariaz eskatzen baditu.

Proiektua beste administrazio publiko batzuek diruz laguntzen badute, Martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuaren 49. artikulua, administrazio publiko horiek emandako funtsei dagokienez.

Kutxako ordainagiriak erabiltzeko baimena ematen da, ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 40.3 artikuluan adierazitako baldintzetan.

- e) Auditoriaren txostena dakarren justifikazio-kontua eta guzti, martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuaren 48. artikuluan ezarritako baldintzak betez. 60.000 € edo gehiagoko dirulaguntzetan, bereziki modalitate hori gomendatzen da. Txosten horien kostua diruz lagundu ahal izango da 6.2.d.b. puntuan ezarritako baldintzetan.

Auditoriaren txostena dakarren justifikazio-kontuan ez da beharrezkoa izango gerora fakturak eta ordainagiriak aurkeztea, organo eskudunen egiaztapen- eta kontrol-jarduketetan eskatzen direnean izan ezik

Bilboko Udalak diruz lagundutako beste edozein programa edo proiektuen finantzazioa erabat justifikatu barik badauka eskaria egin duen erakundeak, kontzeptua edozein dela ere, ez da finantza-laguntzetarako libramendurik egingo.

Hala ezartzen du Ordenantza Orokorraren 14.7 artikulua arabera, nazioarteko erakundeek beren dokumentuen bidez justifikatu ahal izango dute, mota horretako erakundeek justifikaziorako erabiltzen dituzten sistemak eta protokoloak kontuan hartuta.

Behar bezala egiaztatutako salbuespenezko egoeretan, beste justifikazio-modu batzuk onartu ahal izango dira, martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **19.4 Justifikatzeko beste betebeharrak.**

Memorian hizkuntza eta/edo irudi ez-sexistak erabili behar dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datuak aurkeztu beharko dira

#### **19.5. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada**

Justifikazio-betebeharrak ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14.artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharrak eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean, itzultzeko betebeharrak, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea**

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.